

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko apirilak 22 · 1225. zenbakia



ARGAZKIAREN MAGIAK LILURATUTA

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solaria jorgevega.eibar@gmail.com





osasun gida

Dentistak



arat
Hortz Klinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
www.aratclinicadental.com
www.ginecologiaeibar.com
www.kirurgiaestetikoa.com

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibog handekin ibundutako enpresa

IRAZABAL
clinica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clinica esttica

Dr. J Ramn Fdez. Cuadros

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Ejiuren, 6. bulego 943 206 044

EIBAR HORTZ KLINIKA CLINICA DENTAL

MAITANE G. INIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustn, 4 beheko esk.
943 537 076 - 688 884 808

info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-782886

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
FISIOTERAPIA ZENTRUA

770 kulgara elkar.
- ENDOTERAPIA
- KIRURGI LERROAK
- Puztekin urea TRATAMENDUA
- G-terapia + HIRIPIZTOSIAK

ARRAGATA, 20
Tlf: 943 53 56 42
www.aneofisio.com

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tlnoa: 943 20 72 17

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clinica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1.c
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850



Dr. Laura Martnez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martnezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Aurten 12. edizioa bete duen "Grito de Mujer" Nazioarteko Poesia eta Arte Jaialdiarekin bat, Eibarren, Errebal Plazan egindako ekitaldia. Parte-hartzaileak: Maite Lorenzoren poesia taldekoak, beste hainbat poeta, J.B Gisasola haur abesbatza, Alberto Luis Egia pianojolea eta Kezka dantza taldea, besteak beste.

Eibarko Gerra Zibileko bonbardaketen eta gerra-frontearen 85. urteurrena beteko da aurten eta, horren harira, Udalak zenbait ekintza antolatu ditu apirilaren 25etik maiatzaren 7ra bitartean. 2001. urteaz geroztik, bost urtean behin, ekintza bereziak antolatzen dituzte herrian eta, Jesus Gutierrez historialariak aurkezpenaz azaldu duenez, "erronka gero eta handiagoa da".

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Oskar Manso

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

8.150 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Gatazkaren elementu garrantzitsuen Ukrainaren neutraltasun konpromisioa izan beharko litzateke: aliantza militar bateko partaide ez izatea, alde batetik, eta Errusiara begira ditzaketen armarik ez izatea, bestetik. Guztiok ulertuko genuke Mexikok ezingo lukeela bat egin Txinak zuzendutako aliantza militar batekin, EEBB-ra begiratzen duten arma txinatarrak bere lurretan hartuz eta Liberazio Ejerzito Popularrarekin maniobrak eginez. Gainera, aliantza horrek lehen ere Errusia nahiko arduratu duenean Serbian, Iraken, Libian eta bestetan izandako parte-hartzearekin.

NOAM CHOMSKY, filosofoa eta hizkuntzalaria

‘Zientifikoki probatua’ adierazpenik perbertsoenetakoa da. Zientifikoki ezeztatu egin dezakezu, baina inoiz ez probatu. Matematikek badute probatzeko ahalmen hori, baina hori ez da beste zientzietan ematen. Esan dezakegu harriak erori egiten direla, milaka ikusi ditugulako erortzen eta bat bera ere ez gorantza joaten, edo aldamenera, beti ere kontuan izan ez dugun zergatiarengatik. Harriak erortzen diren ezagutza indartsua da, baina edozein momentu edo egoeratan gezurtatu dezakegu. Egia guztiak behin behinekoak direlako.

JUAN IGNACIO PEREZ, biologoa

Shangaiko behe auzoko herritarrek bizi behar izan duten sufrikarioa ez da nolana hikoia izan. Ez da erraza Txinako gobernuak ezarritako konfinamenduari aurre egitea: gobernuak arrazionatutako berdura eta barazkietatik kanpo, bakoitzak bere etxeetan duten ardoa besterik ez dutelako izango hurrengo egunei eusteko. Udal-funtzionarioek eraikinen sarbideetako atek soldatu dituztelako, inor irten ez dadin. Asiako diktadurak ezarritako zero kutsadura politikak kutsatutako umeak ere gurasoengandik banatu eta isolatzera eramaten duenean.

ZIGOR ALDAMA, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OGIBITTARTEKO → Otartekoa, bokadillua. "Arratsaldietan beti jaten dau ogibittartekua".

OGI-MUTXIKIN → Ogi zati txikia. "Gerriak urten ebanian, jentia ogi-mutxikiñekin, zeozer jateko, ogi-mutxikin sikuekin jentia".

1971

Galerias Preciados dendako diskoei begira

Plazaola argazkilariak 1971-72an hartutako irudian neska gazte talde bat ikus dezakegu, sasoi hartan herrian zegoen denda handiengan, Galerias Preciados izenekoan, diskoak saltzen zuten txokoan zegoen eskaintza bigiraten.



Farmaziak

BARIXAKUA 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 24
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 27
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrrialdia	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Asuncion Fuerte De la Torre.** 85 urte. 2022-04-6.
- **Maria Armolea Alzaa.** 88 urte. 2022-04-6.
- **Rahma Benslimane.** 86 urte. 2022-04-7.
- **Jose Antonio Andonegi Gabilondo.** 91 urte. 2022-04-9.
- **Juanjo Vitoria Merino.** 60 urte. 2022-04-10.
- **Arrate Mujika Astigarraga.** 90 urte. 2022-04-11.
- **Maria Luisa Foruria Arriaga.** 92 urte. 2022-04-12.
- **Herminia Tejera Blanco.** 88 urte. 2022-04-13.
- **Arturo Palacio Pedraja.** 90 urte. 2022-04-15.
- **Santiago Vieco Soría.** 75 urte. 2022-04-15.
- **Maria Iraolagoitia Otxandiano.** 51 urte. 2022-04-16.

Jaiotakoak

- **Luna Enas Hamza.** 2022-04-2.
- **Mateo Barroso Mora.** 2022-04-5.
- **Luken Soraluze Ganboa.** 2022-04-5.
- **Ashley Nazareth Mata Piña.** 2022-04-6.
- **Udane San Ildefonso Perez.** 2022-04-6.
- **Danel Urretxu Rodriguez.** 2022-04-13.



Elikagaiak alferrik ez galtzeko proiektua jarri dute martxan Hezkuntza Esparruan

Eibarko Hezkuntza Esparruko jantzerian elikagaien xahuketa edo hondapena murrizteko diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko helburua duen plana ipini dute martxan Mankomunitateak eta Hezkuntza Esparruak, “ondoren, iraungitze data duten elikagaiak kolektibo ezberdinei banatzeko sistema bat proposatu eta alferrik galtzea saihesteko”.

Eusko Jaurlaritzak proiektua hautatu du garapen jasagarria sustatzeko diru-laguntzen lerroa-

ren baitan, eta 15.771 euroko diru-laguntza jasoko du.

Hezkuntza Esparruko jantzerian bertan diagnostiko bat egingo da lehenik, Aste Santua eta gero. Gaur egun 200 pertsonen gosaltzen, jaten eta afaltzen dute bertan, eta horietako gehienek egoitza dute ostatu. Botatzen den janariaren inguruko diagnostikoa osatzeko, sukaldean eta jantzerian azterketa lanak egingo dituzte, eguneko hiru otorduetan, asteko zazpi egunetan eta menu ezberdinetan.

Espainiako Gobernuak Maia Usobiaga erizain eibartarra indultatu du

Iruñean bizi den Maia Usobiaga eibartarrak Espainiako Gobernuaren indultua jaso du. “Kondenatuaren egoera kontuan hartuta, eta espedientean agertzen den informazioaren arabera, justizia eta ekitate arrazoiak daude”, erabakia hartu dutenen arabera.

Usobiagak 23 hilabetez egunero zortzi euro ordaintzeko, hamar urteko inhabilitazioa eta hiru urte

eta bederatzita hilabetezko espetxe zigorra jaso zuen, Nafarroako Osasun Zerbitzuan erizain bezala lan egiten zuenean, 2006. eta 2011. urteen bitartean, bere bikote ohiaren historial klinikoa zelatatzeagatik, bikote ohiaren baimenik gabe eta asistentziarako lotura barik, bikotea banandu eta bikotekide izandakoak bere kontrako salaketa egin eta gero.

II. Errepublikari buruzko informazio ugari bildu du Ego Ibarrek Interneten

Eibarren aldarrikatu zen II. Errepublikaren inguruko informazioa Ego Ibarren webgunean eta Youtuben entzungai, ikusgai eta irakurgai ipini dituzte, “Eibarko Pakto Federaletik hasi, I. Errepublikaren urrats txiki hartatik igaro eta II. Errepublikara iritsi arte. Ezin da ahaztu II. Errepublikak izan zuela bere aurrekaria: 1869ko ekainaren 23an bildu ziren Eibarren Euskal Herriko federaziozale errepublikarrak eta Eibarko Ituna edo Pakto Federala sinatu zuten”. Ego Ibarra batzordeak eskuragarri ipini dituen artean, besteak beste, ahozko testigantzak, idatzitako dokumentuak eta hitzaldietako grabazioak daude.



Arrate Homes etxebizitza proiektuaren aurkezpena

Neinor Homesek apirilaren 7an aurkeztu zuen Arrate Homes proiektua, Portaleko areto nagusian. Azaldu zuten, Errebal Plazaren aldamenean eraikiko duten bizitegi-gunean 82 etxe egingo dituzte guztira, eta horretarako inbertsioa 25,3 milioi eurokoa izango da. Eraikuntza-lanak hasi dira, ACR enpresaren eskutik, eta 2023. urte amaierarako dena amaituta egotea espero dute.



Asteroko ibilaldiak eta erretzeari lagatzeko terapia Minbiziaren Aurka Gipuzkoan-ekin

Aste Santua igarota, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak berriz ere ekingo dio oinezko ibilaldi osasungarrien programari Debabarrenean. Herritar guztientzako jarduera da eta asteartero 10:00etan izango da, elkarteak Eibarren duen egoitzatik abiatuta (Ardantza, 11). Astero, 5 kilometro inguruko ibilbidea egingo da eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Doako ekimen honi buruzko informazio guztia elkartearen web orrian

dago. Bestalde, apirilean hasiko dira erretzeari lagatzeko taldeak, tabakismoan aditua den psikologo batekin. Diotenez, “8 asteko doako terapia honek %60ko arrakastatasu du”.

Online edo modu presentzialean jaso daiteke. Ordutegiak eta zehaztapenak Interneten daude eta izena emateko 943 45 77 22 telefonora deitu edo gipuzkoa@contraelcancer.es helbidera mezua bidali daiteke.

AUTUAN

BIHAR IZANGO DA AZKEN BISITA GIDATUA

Udalak, Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziarekin batera, bisita gidatuak antolatu ditu Aste Santurako eta horietako azkena bihar izango da, 18:30etik 20:00etara. Estaziñotik hasita, bisita herriko kaleetan zehar egingen da, Nerea Alustiza historialari eibartarrak gidatuta. Prezioa 5 eurokoa da helduentzat (2,5 euro eibartarrentzat), eta doakoak 12 urtetik beherakoentzat eta 65 urtetik gorakoentzat. Bestalde, bisitak euskaraz edo gaztelaniaz egingo dira, izena ematen dutenen arabera. Izena emateko 670 391 265 telefonora deitu edo eibarvisit@gmail.com idatzi behar da.

Made in Eibar



Agintan 14, 16, 18, 20 de abril 18:30-20:00

© Markak Aholakua S.L. 432 urteko Eibar/Barakaldo/Leizorako Euzko Gaitza Berrikuntza Proiektua 1.1.4

Astindu ohiturak!!



Errenta aitortpena?

Aurten ere, duda barik,

EUSKARAZ!!!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
- **Mekanizatua egiteko**
 - ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
 - aitortpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula
- **Internet bidez** egitean, jaitsi errenta programaren euskarazko bertsioa, euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.





Eskola-kirolaren inguruko diagnostikoa jarri du martxan Udalak

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Athlon Coop. enpresarekin batera, herriko eskola-kirolaren analisia eta diagnostikoa egiteko prozesua hasi du, orain dela egun batzuk jakinarazi zuten bezala. Azaldutakoari jarraituta, prozesuak sakon aztertuko du zein den eskola-kirolaren errealitatea herrian, eta zeintzuk diren jarraitu beharreko pausoak, ondorengo fase batean eredia eguneratzeko. Lan hori aurrera eramateko, he-

rriko eskoletan inkestak banatzen hasi dira, zuzendaritza-taldean eta guraso-elkartean laguntzarekin.

Bestalde, iaz hasitako prozesuari esker, eskola-kirol egokituko taldeak (EKE) eta kirol inklusiboko taldeak (EKI) martxan ipini dituzte Eibarren, eta bertan ikastetxe ezberdinetako zazpi neska-mutil ari dira parte hartzen. Helburua dibertsitate funtzionala duten eta eskola-adinean dauden haurrei kirola egiteko aukera ematea da.

Andretxea berria antolatzen lan-batzordearen bilera

Datorren urteko lehen hiruhilekoan Isasin zabalduko den Andretxea berria antolatzen lan-batzordea berri ere martxan dago, eta parte hartzeko interesa dutenei jakinarazi nahi diete bilera egingo dela, astelehenean, 16:00etan, Andretxean (Zezenbide, 9 behea).

Bileraren antolaketa errazte aldera, joango direnei baieztatzen eskatu dute arduradunek. Horretarako 943 543 938 / 688 853 440 telefono zenbakietara deitu daiteke edo, bestela, andretxea@eibar.eus helbidera idatzi.



“Rusia frente a Ucrania. Imperios, pueblos, energía” hitzaldia emango du Carlos Taibok

Gerrarik Ez Eibar eta Lumaltik Herriak elkarten eskutik, “Rusia frente a Ucrania. Imperios, pueblos, energía” izenburuko hitzaldia emango du Carlos Taibo, idazle, editore eta Administrazioetako eta Politika Zientzietako irakasle erretiratuak martitzenean, 19:00etan Errebal Plazan. Altermundialismoaren, desazkundeen, zuzeneko demokraziaren eta anarkismoaren defendatzaile sutsua, bere

azken liburuaren izenburu bera jarri dio hitzaldiari Taibok. Mendebaldeko potentziak atzean direla, Ukraina eta Errusiaren arteko tentsioak berri azaleratu dira aurretik eta, hain zuzen, tentsio horien jatorria azaltzen ahaleginduko da datorren asteko hitzaldian, gatazkaririk buruzko azalpenak emanez eta AEBek, Europako Batasunak eta Errusiak dauzkaten ardurak azaltzeko.



Bi laguneren arteko desafio modura hasi zen erronkari esker, ia 8 tona janari eta ia 9.000 euro bildu zituzten Debabarrenean. Aurtengo erronka iaizkoa gaintzea da.

Laguntza eske, Lesbosen dauden errefuxiatuei jaten emateko

Zaporeak elkarteak Greziako errefuxiatuentzat janaria bilduko du aurten ere, atzo bertan Debabarrenean abiatu zen kanpaina. Aurrekoetan bezala, oraingo honetan ere herri bakoitzean produktu konkretu bat batuko dute, herritarren laguntzarekin: Eibarren pardina dilista jasoko da, Ermuan eta Deban grano biribileko arrosa, Elgoibarren garbantzu pedrosillanoa eta Mallabian eta Sorluzen hodi erako makarroiak.

Aurtengo erronkan 2021ean batutakoa gaintu nahi da eta, hori lortzeko, enpresa, ikastetxe eta bestelako kolektiboak zein herritarrak apirilaren 29ra arte egingo den bilketa honetan parte hartzera gonbidatu nahi dituzte. Denon ahaleginarekin bete nahi den helburua zehatza bezain argia da: Lesbosen dauden errefuxiatuei jateko zer-bait eskaintzea, gutxienez egunear behin otordu duin bat egiteko aukera izan dezaten. Baina, horretara-

Eibarren pardina dilista bilduko dute, datorren asteko barixakura arte. Itxiera-ekitaldi gisa, tuper solidarioa egingo da Errebal Plazan, apirilaren 30ean

rako, herritarren laguntasuna ezin bestekoa da: “Egun bakar batean 300 kilo lekale, pasta edo arroz behar dituzte sukaldean aritzen diren boluntarioek, errefuxiatuei otordu bana eman ahal izateko, eta horri fruta, barazki eta okel-ongailuak gehitu behar zaizkio”.

Urtetik urtera geroz eta janari gehiago biltzea lortzen duen ekimena bi laguneren arteko apustua-rekin, Jesus Gonzalez eta Mireia Alonsoren arteko desafioarekin, hasi zen: baietz bakoitzak bere herrian (Ermuan eta Eibarren) 1.000 kilo janari bildu. Hori izan zen elkarri botatako desafioa eta biek lortu zuten “askorengatik gaintzea, gainera”.

Mallabia, Elgoibar, Ermua eta Eibarrek osatu zuten iaizko taldea eta, guztira, 8 tona janari biltzea lortu zen. Horrez gain, ia 9.000 euro batu ziren dirutan. Janari eta diru guztia Greziara, Lesbos irlara bidaltzen da. Horrelakoei esker, han dauden Zaporeak-eko boluntarioek 3.000 lagunentzat jatekoa prestatzen dute egunero eta, gainera, jendeak emandako diruarekin, errefuxiatuen artean banatzeko esnea (7.000 litro astean) eta fruta (2.500 kilo astean) erosten dute.

Tuper solidarioa Errebal Plazan

Janaria biltzeko kanpaina ixteko, bestalde, “Tuper solidarioa” izeneko ekimena egingo da apirilaren 30ean, Errebal Plazan, 14:00etatik 15:00etara: tuperraren erdiak lentejak bakailaoarekin izango du, beste erdiak arrosa Lumagorrirekin eta, fruta pieza batekin batera, 5 eurotan erosi ahal izango da, gero etxean jateko. Eta, aipatutakoaz gain, diruz laguntzeko aukera ere badago, Caixabank-eko kontu honetan: ES53 2100 2724 8101 0066 3988.

Ezin ahaztu diren bonbardaketak gogora

Informazio
gehiago:



Eibarko Gerra Zibileko bonbardaketen eta gerra-frontearen 85. urteurrena beteko da aurten eta, horren harira, Udalak zenbait ekintza antolatu ditu apirilaren 25etik maiatzaren 7ra bitartean. 2001. urteaz geroztik, bost urtean behin, ekintza bereziak antolatzen dituzte herrian eta, Jesus Gutierrez historialariak aurkezpenean azaldu duenez, “erronka gero eta handiagoa da”.

Bonbardaketak gogoratze-ko ekintzak hilaren 8an hasi ziren, Juan San Martin liburutegian egin zen ‘Hitzak, liburuak eta liburutegiak gerren aurka’ izeneko poema eta testuen irakurketarekin. Hurrengo ekintza astelehenean egingo da, hilaren 25ean, orain dela 85 urte herria suntsitu zuten bonbardaketen egunean (7.200 kilo bomba bota zituzten Eibarren). ‘Sasi artean Elgeta’ komikia aurkeztuko dute Portalean, 19:00etan. Komikiak Jazinto Rivas Sanz ‘Elgeta’ trikitilariaren bizitzaren pasarteak kontatzen ditu, horietako asko Eibarren gertatuak.

Rivas, umezurtza, Bergarako Intxuzabal baserrian hazi zen eta Eibarren hasi zen lanean. Hemen, herriko musika bandako kideak ezagutu eta bere errepertorioa aberasten hasi zen, eta sozialismoaren ideiak bereganatu zituen.

Gerra Zibilean boluntario bezala aritu zen Bilboko Burdin Hesia



(Gerrikoa) eraikitzen, eta Santoñako eta Cadizeko espetxeetan egon zen preso. Ez zuen zigor osoa bete, baina berriz sartu zuten kartzelan, “frontean horrenbeste jende hiltzen ari zenean musika jotzea” egotzita. Urbanas fusilatua izateko zorian ere egon omen zen, baina, txiripaz, bera zegoen errenka salbatu egin zen.

Hiru hitzaldi

Hilaren 26an, Jesus Gutierrez historialari eibartarrak ‘La reconstrucción de Eibar en imágenes’ izeneko hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Portalean. “Gerraren testuinguruan, ilusio eta esperantza mezua igorri nahi dut, gerrak suntsitutako herria nola berreraiki zen adieraziz”, historialariaren berbetan.

Gutierrezena ez da hitzaldi bakarra izango, hilaren 28an, egueanean, Xabier Irujo Ametzaga historialariak ‘Atlas de bombardeos en Euskadi (1936-1937)’. El caso de Eibar’ izeneko hitzaldia eskainiko baitu, 19:00etan, Portalean. “Irujo gurean egotea ohore handia da, erreferentea delako. Gainera, denon ahotan egon da azken aldian, batez ere Volodimir Zelenski Ukrainako presidentea bere herrialdean eta Gernikan gertatutakoa alderatu zuenetik. Irujo genozidio ikerketetan aditua da”, Gutierrezen berbetan.

Irujo Ametzaga Caracasen (Venezuela) jaio zen eta Nevadako Unibertsitatean dagoen Renoko Euskal Ikerguneko zuzendaria da. Filologian, historian eta filosofian lizentziatu zen UNEDen, eta zazpi



Xabier Irujo eta Nieves Concostrina izango dira programaren protagonistetako bi.

>>> Jesus Gutierrezek, Xabier Irujok eta Nieves Concostrinak bonbardaketen inguruko hitzaldiak eskainiko dituzte

aldiz eman zioten espediente akademiko hoberenaren sari akademikoa.

Hitzaldiekin amaitzeko, SER irrati-katean entzun dezakegun Nieves Concostrina historian aditua den kazetariak ‘La Guerra Civil. Bombardeos’ izeneko hitzaldia eskainiko du urriaren 7an, 19:00etan, Coliseoan.

Concostrinak Diario 16 egunkarian hasi zuen kazetaritza ibilbidea eta, telebista kateetatik pasa ondoren, ‘Acontece, que no es poco’ atala egiten du SER kateko ‘La



Lekimek tranpantojoa egingo du klarionekin eta 'Sasi artean Elgeta' komikia aurkeztuko dute.

ventana' saioan eta zenbait sari jaso ditu bere ibilbidean (tardean, Ondas saria).

Antzerkia eta klariona-tailerra

Apirilaren 27an, eguaztenean, Puça Espectacles taldeak 'Winnipeg' izeneko antzezlan eskainiko du 20:00etan, Coliseoan. Sarreraren prezioa 10 eurokoa izango da (7 eurokoa Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat).

Zapatuan, hilaren 30ean, Lekim animazio taldeak 'Eibar. Babeslekuak' izeneko klariona-tailerra eskainiko du Untzagan eta tranpantojo bat margotuko dute Ego Gain kalean bonba batek lurreen egindako zuloa gogoratuz.

Bonbardaketak ezagutzeko ibilaldi gidatuak

Jesus Gutierrezek, azkenik, Eibarrek jasandako erasoak ezagutzeko ibilaldi gidatuak eskainiko ditu apirilaren 30ean (gaztele-raz) eta maiatzaren 7an (euska-

>>> Eibarrek 29 bonbardaketa jasan zituen 1936ko abuztuaren eta 1937ko apirilaren artean

>>> Hegazkin italiarrek 7.200 kilo bonba bota zituzten Eibarren egun batean

raz), 10:00etatik 14:00etara, Ego Gain kaletik hasita. Bertan, 1936ko abuztuaren eta 1937ko apirilaren artean herriak jasandako 29 bonbardaketak gertutik ezagutzeko aukera egongo da, toki garrantzitsuenak bisitatuz.

Ibilaldiok 16 urtetik gorakoentzat daude pentsatuta. Bi talde osatuko dira, talde bakoitzak gutxienez sei kide izango ditu eta gehienez 20. Jarduera doakoa izango da eta izena emateko epea apirilaren 28ra arte egongo da zabalik, <https://formularioak.eibar.eus/es/IbilaldiaErasoak2022> helbidera formulario bat bidalitz.

Inprimakia betetzeko ez da behar ez sinadura elektronikorik, ez erabiltzailerik ez pasahitzik. Inskripzioa egiten denean datu hauek eman behar dira: izen-abizenak, telefonoa eta posta elektronikoa. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943708435 telefonora edo idatzi mezu bat honako helbide elektronikora: kultura@eibar.eus.

JESUS GUTIERREZ • Historialaria

“Herriaren %75 txikituta geratu zen bonbardaketen ondorioz”

Jesus Gutierrez historialariak Eibarko bonbardaketaren 85. urteurrena gogoratzeko programaren antolakuntzan ibili da eta, horrez gain, hitzaldia eta ibilaldi gidatuak eskainiko ditu. Bere elkarrizketaren bideoa ikusi nahi izanez gero, gure YouTubeko kanalean duzue ikusgai.



Jesus Gutierrezek hitzaldia eta ibilaldi gidatuak eskainiko ditu.

Programako zein ekitaldi azpimarratuko zenuke?

Programa herritarrekin partekatzea da garrantzitsua. Goi-mailako hizlariak etortzea garrantzitsua da, baina herritarren parte-hartzea eta zerbait emozionala egitea bilatu dugu. Hainbeste urte pasa ondoren, zaila izaten da horrelako bizipenak gogoratzeko; baina, zoritxarrez, mundu mailan bizi den egoera ikusita, komenigarria da Eibarren bizi izan genuen egoera oroitzeko.

Egun batetik bestera bizitzan aldatu daitezke.

Hori da. Hemen, 1936ko uztailaren 17an, barixaku batean, Armeria Eskolako ikasleak ikasturte amaiera ospatzen ari ziren. 18-20 urte zituzten eta aurretik zuten bizitzari esperantza askorekin begiratzen zioten. Batean dena aldatu zen eta Gerra Zibilak euren bizitza guztia baldintzatu zuen.

Gerraren ondoren Eibar nola berreraiki zuten azalduko duzu hitzaldian, esperantzako eta ilusiozko mezua eman nahian. Baina nola?

Herriaren %75 txikituta geratu zen bonbardaketen ondorioz (zenbaki zehatzak ditugu eta badakigu zenbat etxe txikituta geratu ziren). Herria berreraiki behar zen eta hor hasi zen gaur egun ezagutzen dugun Eibar. Etxeak eta tailerrak elkarren gainean hazi ziren eta gure ikurretako bat da hori. Herriko dentsitatea (urte gutxitan biztanleria bikoiztu zen), aldapak eta bestelako zailtasunak ikusita, gaur egun gauza batzuk ulertezinak iruditzen zaizkigu, baina sasoiak nolakoak zen ezagutu behar da.

Herriaren berreraikitzea, fisikoa izan ezik, morala ere izan zen?

Herriak inplikazio nabarmena zuen Errepublikarekin eta ezkerrearekin, eta arlo horretan ibili ziren pertsona asko hilda, kartzelan edo erbestean zeuden. Beraz, beharrezkoa zen batasun edo harrotasun espiritu bat sortzea, eta kirol-elkarteen, elkarte gastronomikoen eta horrelakoen bidez lortu zen.

Ibilaldi gidatua nolako izango da?

1936ko abuztuan lehen bonbardaketa jasan ondoren, Udalak 16 babesleku prestatu zituen eta biztanle bakoitzak bazekien nora jo behar zuen bonbardaketak gertatuz gero. Horrela, bonbardaketak jasan zituzten toki nagusiak ezagutuko ditugu.

Debabarreneko gaztarik onenak dastatzeko aukera Errebal Plazan

Eskualdeko gaztagileek euren produktuak jarriko dituzte salgai bihar, zapatua, 08:30etik 13:00etara, Errebal Plazan. Mota ezberdinetako gaztak dastatzeko aukera egongo da, eskualdean ekoizten diren kalitate handiko produktuen erakusle. Hauek izango dira bertan egongo diren Debabarreneko gazta-ekoizleak: Enrike Gisasola (Sosola baserria, Eibar), Beñat Egaña (Goienetxe baserria, Mutriku), Iñaki Ansola (Mausitxa baserria, Elgoibar), Nagore Martin (Egotza baserria, Soraluze) eta Ruben Markina (Mallegoi baserria, Mallabia).

Gaztaren aromak jantziko du bihar Errebal Plaza eta zapore desberdinak dastatzeko aukera egongo da, baserritarren postuen inguruan. Ardiarena, ahuntzarena, behiarena... Hainbat gazta mota ekoizten dira Debabarrenean, baina kontua ez da zapore ezberdinak eskaintzea soilik, baizik eta kalitatezko produktuak eskaintzea.

Hiru dira ardi-gazta ekoizten duten debabarrendarrak: Mutrikuko Goienetxe baserriko Beñat Egaña, Elgoibarko Mausitxa baserriko Iñaki Ansola eta Eibarko Sosola baserriko Enrike Gisasola.

Goienetxe gaztandegia Mutrikuko Olatz auzoan dago eta, Beñatekin batera, Maitane emazteak egiten du lan bertan. Beñaten ama, Mila, hasi zen artisau-gazta egiten eta semeak jarraipena eman dio amak hasitako bideari.

Goienetxen 340 ardi dituen ukui-lua dute eta, ardiek ematen duten esnari esker, gazta naturala eta ketua egiten dute. Gainera, euren ins-

talazioak eta ekoizpen-prozesuak ezagutzeko bisita gidatuak antolatzen dituzte, eta gazta eta tokiko produktuak saltzeko denda dute.

Elgoibarko Mausitxan ere ardi-gazta egiten dute, baina eurenak berezitasun bat du: Idiazabaljatorri izendapena. Mausitxako gaztak bi eta lau hilabete artean ontzen dira, eta osorik eta ziritetan saltzen dira, hutsean ontziratuta. Gazta ketua eta naturala egiten dute, sei zapore ezberdin eskainiz.

Urnobitza mendiko hegaletan dago Mausitxa baserria eta, 900 ardi osatutako artaldeari esker, gazta ekoizteko behar diren bi lehengaiak lortzen dituzte: esnea eta gatzagi naturala. Ansola familiak belaunaldiz belaunaldi egin du lan artzaintzan eta Mausitxa gaztak hainbat sari lortu ditu azken hogeitun urteotan.

Eibarko erdigunetik kilometro eta erdira, Mandiola auzoan dagoen Sosola baserrian, ardi-gazta ekologikoa egiten dute. 120 ardi eta 16 hektarea dituzte eta, gaztaz gain, ogia ere egiten dute. XVI. mendeko



Errebal Plazak lehen aldiz jasoko du Gazta Azoka. ARTXIBOA

baserrian ostatu hartzeko aukera ere eskaintzen dute.

Bihar Sosolako gazta Errebal Plazan egongo da, baina egunero aurkitu dezakegu Artamendi harategian eta Isasi okindegian.

Zapore eibartarra duen ahuntz-gazta

Soraluzeko Egotza baserriko Nagore Martin eibartarrak ahuntz-gazta egiten du. Martin kalegunean hasi eta hezi bazen ere, orain dela bederatzirte eremu hura laga eta Soraluzeko Egotza baserriko lur malkartsuetan ahuntz alpinoen ustiapena jarri zuen martxan. 90 ahuntz inguru ditu gaur egun eta Gipuzkoan dauden lau ahuntzainetakoko bat da.

Egotza izenarekin hiru gazta mota merkaturatzen ditu (pasta prentsaturia, gazta freskoa eta ruloa) eta azoketan zein Soraluzeko denda txikietan jartzen ditu salgai.

Martinek 'Emakumeak Landa Eremuan' saria jaso berri du, Landaolaren eskutik. "Sari honekin baliolan jarri nahi dugu Nagorek egin duen autua, Soraluze bezalako herri

batean baserriatik bizimodua ateratzeko eta, hala nola, baserri munduarekin inolako loturarik izan ez duen emakume bat izanik, hirigunetik baserrira joan eta ganaderitza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko izan duen kemena", aipatu zuten Landaolatik.

Mallabiko behi-gazta

Biharko azokan aurkituko dugun behi-gazta bakarra Mallabitik dator, Mallegoi baserriatik. Ruben eta Eneritz senar-emazteak arduratzen dira Axeleku izeneko gazta ekoizteaz, artisau-lana eginez eta modu tradizionalan. Horretarako, euren behien esnea erabiltzen dute. "Kalitate handiko gazta egiteko, ezinbestekoa da gure behiak ondo zaintzea eta elikadura on bat izatea", diote.

Eskualdeko beste ekoizleek bezala, eurek ere bisita gidatuak eskaintzen dituzte euren instalazioak ezagutzeko eta, bihar produktuak Eibarren salgai jartzeaz gain, axeleku.com webgunean ere eskuratu daitezke.

Debabarreneko bost gazta ekoizleren produktuak egongo dira salgai azokan

Azokaren ateaik 08:30ean zabalduko dituzte eta 13:00ak arte egongo dira postuak



ASIER EZENARRO

Frantziako krisia

Frantziako langileen ezinegona eta haserrea nabarmenak dira. Langileek eta erdiko klaseek ikusi dute nola aldatu den bere aberria. Ikusi dute nola itxi zituzten Renaulteko lantegiak eta, alderantziz, Disneyland geratu dela.

Ekonomia mundu-mailakoa bihurtzearen ondorioz enpresa asko Asia aldera joan dira; eta horri murrizketak gehitu behar zaizkie, langileen urduritasuna ulertzeko. Eta ez hori bakarrik: Frantziako gizartearen nortasuna jokoan dago, eta hori hauteskundeetan ere azaltzen da.

Azken urteotan, Nikolas Sarkozy eta François Hollanderen gobernuekin, erdiko klaseek eta langileek gero eta babesgabezia handiagoa sentitu dute. Thierry Meyssan analistaren esanetan, esan dezakegu Frantzia hiru mailatan banatu dezakegula:

- a) Gizartearen gehiengoa, erdiko klaseak, txirotze prozesuan daudenak, gehienez landatar aldeetan kokatzen dira;
- b) Deserrotuta dauden milioika etorkinak hiri haundien kanpoaldeetan bizi dira;
- c) Eta Estatu Batuak miresten dituen eliteak, hiri haundietan bizi direnak.

Garai batean indartsuak ziren Frantzian bai alderdi sozialista eta baita alderdi komunista ere. Orain “kanpoko proletargo” baten haunditzea ikusi dute (gogoratu 2005eko istiluak) eta, aldi berean, Marine Le Penen gorakada eman da hauteskundeetan, abokatu honek globalizazioaren aurkako diskurtsoari eutsi dionean.

Etorkinen eta Islamaren arazoa guztiz garrantzitsua bihurtu da Frantzian. Sarkozy eta Hollandek AEBen menpe jarri zuten Frantziaren atzerri politika, eta Ekialde Hurbileko arazoetan AEB eta Israelen alde.

“Islamiar terrorismoak” gogor jo zuen azken urteotan eta, Gilles Kepelen hitzetan, “Fronte nazionalak Yihad-eko terrorismoak sortzen dituen kezka faktoreak ia mekanikoki erabiltzeko. Kalashnikov batek errudun batzuk sarraskitzeko asmoa agertzen duen bakoitzean, Allahu Akbar oihiarekin, argudio berriak eskaintzen dizkio islamiartzearen aurkako borrokari”.

**“Frantziako
gizartearen
nortasuna jokoan
dago, eta hori
hauteskundeetan
ere azaltzen da”**



rrikoa edota betaurrekoak bezalako berbak biltzen ditu posterrak, ondorengo orrietan ikus dezakezuen moduan eta, horrekin batera, koloreak, neurriak eta materiala ere azaltzen dira.

Urtebeteen zazpi horma-irudi

2020ko abenduan hasi zen ...eta kitto! Euskara Elkartea herriko dendetarako horma-irudiak egiten. Azkeneko hau zazpigarrena da. Arraindegiak eta harategiak izan ziren posterrak jasotzen lehenak, eta haien atzetik etorri ziren okindegienak eta fruta-dendena. Gero, ostalaritzari zuzendutako materiala banatu zuen ...eta kitto!-k Eibarko tabernetan; tabernari eta bezeroen artean erabili ohi diren hainbat esaldi eta berba biltzen zituen posterrak eta, horrekin batera, oinarrizko hiztegi-txo bat ere jaso zuten tabernariak.

Kirola ere ez da ekimen honetarik kanpo gelditu eta, Eibar Fundazioarekin egindako elkarlanari esker, futbolari eta, oro har, kirolari buruzko bi kartel argitaratu eta banatu ziren joan den ikasturtean herriko ikastetxe, euskaltegi, prestakuntza-zentro eta kirol-instalazioetan.

Ikastetxe eta euskaltegietan ere banatuko dira

Dendetan ez ezik, herriko eskolatan eta euskaltegietan ere banatuko ditu posterrak datozen egunotan elkarteak: "Posterra oso tresna bisuala da eta, beraz, oso erabilgarria izan daiteke edozein ikaslerentzat. Aurreko posterrek interes handia piztu zuten irakasle zein ikasleen artean, eta pentsatzen dugu hau ere haien gustukoa izango dela".

Arropa eta osagarrien posterrak banatu ditu ...eta kitto!-k herriko dendetan

Arropak, oinetakoak eta osagarriak saltzen dituzten dendetan horma-irudi berria banatu du ...eta kitto! Euskara Elkartea. A2 neurriko posterretan euskaraz eta gazteleraz ageri dira establezimendu horietan gehien erabili ohi diren berbak. Dendariak pozarren jaso dute "Euskeraz primeran!" kanpainaren barruan egindako material berria.

Bezeroen eta dendarien arteko euskarazko harremana erraztea du helburu ...eta kitto!-ren ekimen berriak: "Batuetan lotsagatik, beste batuetan ohitura faltagatik, edo euskaraz zelan esaten den ez dakigulako, baina sarri gazteleraz eskatzen dugu behar duguna. Posterretan argi ikus dezake bezeroak behar duen hori euskaraz nola esaten den; beraz, pentsatzen dugu errazago animatuko dela euskaraz eskatzera", elkarteak arduradunen berbetan.

Besteak beste, gona, soinekoa, bainujantzia, mendiko botak, ge-



Arropak oinetakoak eta osagarriak

Euskeraz
primeran!

KOLOREAK - COLORES

GORRIA
ROJO

HORIA
AMARILLO

URDINA
AZUL

BERDEA
VERDE

ZABIA
BLANCO

BELTZA
NEGRO

MOREA
MORADO

LARANJA
NARANJA

GRISA
GRIS

ILUNA
OSCURO

VERTIA
CLARO

MATERIALA - MATERIAL



KOTOIA
KOTOIZKO
ALGODÓN /
DE ALGODÓN



LARRUA
LARRUZO
CUERO / DE CUERO



ARTILEA
ARTILEZKO
LANA / DE LANA



LIHOA
LIHOZKO
LINO / DE LINO



SINETIKOA
SINTETICO



BIRZIKLATUA
RECICLADO

ARROPAK - ROPA



KAMISETA
CAMISETA



ALKANDORA
CAMISA



JERTSEA
JERSEY



KIROL-JERTSEA
SUDADERA



PRAKAK
PANTALONES



GONA
FALDA



SOINEKOA
VESTIDO



BEROKIA
ABRIGO



JAKA
AMERICANA



KAZADORA
CAZADORA



BARRUKO KAMISETA
CAMISETA INTERIOR



KULEROAK
CULEROS



GALTZONTZILLOAK
CALZONCILLOS



BAINUJANTZIA
BAÑADOR




BIKINIA
BIKINI

OINETAKOAK - CALZADO

								
ZAPATAK ZAPATOS	ZAPATILAK ZAPATILLAS	KIROL ZAPATILAK ZAPATILLAS DE DEPORTE	ETXEKO ZAPATILAK ZAPATILLAS DE CASA	BOTA BOTINA BOTA / BOTIN	URETAKO BOTAK BOTAS DE AGUA	MENDIKO BOTAK BOTAS DE MONTE	SANDALIAK SANDALIAS	TXANKLETAK CHANCLETAS

OSAGARRIAK - COMPLEMENTOS

							
GALTZERDIAK CALCETINES	GERRIKOA CINTURON	POLTSA BOLSA/O	LEOTARDOAK LEOTARDOS	ESKULARRUAK GUANTES	LEPOKO ZAPIA PAÑUELO	BUFANDA BUFANDA	GORBATA CORBATA
							
ATERKIA PARAGUAS	KAPELA SOMBRERO	ERAZTUNA ANILLO	BELARRITAKOAK PENDIENTES	PULTSERA PULSERA	LEPOKOA COLLAR	BETAURREKOAK GAFAS	EGUZKITAKO BETAURREKOAK GAFAS DE SOL



NEURRIAK - MEDIDAS LUZEA LARGO MOTZA CORTO ESTUA ESTRECHO ZABALA ANCHO TXIKIA PEQUEÑO HANDIA GRANDE LODIA GRUESO MEHEA FINO

eta kitto!
euskara elkarrean



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa





Familien arteko ginkana maiatzean

...eta kitto! Euskara Elkarteak ekimen berria antolatuko du maiatzaren 6an, barixakua: Familia arteko ginkana. Lehen Hezkuntza osoko ikasleentzat eta haien familientzat

antolatutako ekintza dibertigarria izango da. Taldeka eman beharko da izena eta taldeak, asko jota, hamar kidekoak izango dira. Taldeki-deak familia berekoak edo kuadri-

llakoak edo lagunak izan daitezke, baina ezinbestekoa izango da talde bakoitzean bi-lau heldu izatea, ume kopuruaren arabera. “Untzagan hasiko da ginkana; bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran sariak egongo dira partaide guztientzat. Oso proba dibertigarriak izango dira, familian edo lagun artean oso ondo pasatzeko modukoak”, diote ...eta kitto!-tik. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da gutxienez taldeko helduetako batek ahozko zein idatzizko euskara ulertzea.

Izen-ematea hurrengo astelehenan hasi (apirilak 25) eta maiatzaren 3an amaituko da. Horretarako, ...eta kitto!-rekin jarri harremanetan, 943200918 telefonora deituz edo elkartea@etakitto.eus helbidera mezua bidaliz, edo nahi izanez gero, Astixaren bulegora joan zaitzekete (09:00-13:00) edo telefonoz deitu bertara (943206231).

Tantanez Tantan... aurten bai!

Eibarko euskaltzaleok maiatzaren 21ean dugu hitzordua euskararen aldeko olatuarekin. Euskalgintzako taldeek bi urtetik behin antolatzen duten ekimena ezin izan zen egin 2020an pandemiagatik, baina aurten bai, eta “Tantanez tantan Eibarko kaleak euskaraz bustiko ditu olatu erraldoiak”, diote antolatzaileek. Olatua eguerdiko 12:00etan abiatuko da Urkizuko iturritik eta, herri osoa zeharkatu ondoren, Untzagan amaituko da. “Amaiera berezia izango da; momentuz ezin dugu askoz gehiago

aurreratu, polita eta hunkigarria izango dela, besterik ez”. Eibartar guztiei luzatu nahi diete gonbidapena euskalgintzakoek: “Hor dugu erronka aurten ere: Urkizu eta Untzaga euskaltzalez lotu nahi ditugu, jende-ilara bakarrean, baina horretarako herritar guztien inplikazioa beharko dugu, tarte guztiak bete behar ditugu. Datoren asteotan jakinaraziko dugu zelan antolatuko dugun ibilbideko tarte bakoitza”. Goiburuak dioen moduan, “Tantanez Tantan eibartarrak euskaraz blai!”.



Argazkilaritzak beteko du maiatza osoa, aurten hogeigarrenez

Orain dela egun batzuk, apirilaren 7an aurkeztu zuten Argazkilaritza Maiatzean, Eibarko Klub Deportiboan. Urteroko martxan, egitarau biribila osatu dute Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek eta, horri esker, erakusketak, tailerrak, argazki-rallya eta argazkilaritza kalean izango ditugu herrian bertan, maiatza osoan zehar. Gainera, ARGAZ argazkilaritzari buruzko edukiekin hiru hilean behin kaleratuko duten aldizkari digital berriaren aurkezpena egin zuten ekitaldian.



Eibarko Klub Deportiboaren egoitzan egin zen aurkezpen ekitaldian, Patxi Lejardi Euskara eta Kultura zinegotziak Udalaren esker ona azaldu zien antolatzaileei, urte osoan zehar eta bereziki maiatzera begira egiten duten lanarengatik, eta horrela jarraitzeko animatu zituen Argazkilaritza taldeko kideak. Iñaki Osoro Klub Deportiboko presidentek, berriz, Argazkilaritza Taldeak urte osoan egiten duen lanaren garrantzia nabarmendu zuen: “Eurek beti esaten dute jubilatutako talde bat direla. Ba, jubilatutako talde honek izugarritzko gauzak egiten ditu, harrigarria da diru gutxirekin zenbat gauza egiten eta antolatzen dituzten. Eta egiten duten lana, Eibarren ez ezik, Eibartik kanpora ere ezagutzen dute”.

Jose Luis Irigoienek aurkeztu zuen aurtengo egitaraua. Euskal Herriko zein estatuko argazkilarien lanak ikusteko aukera izango

da, herriko areto ezberdinetan zabalduko dituzten zortzi erakusketetan. Maiatzaren 6tik 29ra Elena Plaza, Eva Franco, Koldo Badillo eta iaz Indalecio Ojanguren XXXIV. Argazki Lehiaketako Ohorezko Saria irabazi zuen Oskar Mansoren argazkiak egongo dira ikusgai Portalean.

Topalekuan, berriz, Juan Antonio Palacios eibartarraren lanak erakutsiko dituzte maiatzaren 6tik 29ra, “Taberna o fragua” izenburuko erakusketan. Eta maiatzaren 6tik 29ra, baita ere, XLVIII. Nazioarteko Gipuzkoa Saria hartuko du Untzaga jubilatutako erakusketaren aretoak.

Maiatzaren 2tik 31ra, Portalea tabernan, Eibarko Klub Deportiboko argazkilarien lanak egongo dira ikusgai; eta Depor tabernak, berriz, Argizaiola 2021 lehiaketako lanen erakusketaren hartuko du, maiatzaren 3tik 31ra.



Klub Deportiboan aurkeztu zuten egitaraua antolatzaileek, Patxi Lejardi Kultura eta Euskara zinegotziarekin batera. SILBIA HERNANDEZ

Erretratu-tailerra Estela de Casorekin

Gainera, maiatzaren 7an eta 8an erretratu-tailerra eskainiko du arlo horretan aditua den Estela de Castrok. Tailerra emango duen argazkilararen berbetan, "tailerren atal teorikoan nire lan egiteko era, trikimailuak eta anekdotak azalduko ditut eta, erretratu bat egiterako orduan egiten ditugun akats ohikoenen inguruan jarduteaz gain, horiek zelan konpondu erakutsiko dugu. Aldi berean, egile klasiko eta gaur eguneko lanak ikusiko ditugu, emakumeek egindako lanak azpimarratuz. Eta atal praktikoan modelo bat izango dugu, berari erretratuak egiteko argazki-saioan. Behar dugun denbora hartuko dugu kliskatu aurretik, lehenengo argia zainduz, gero konposizioa antolatuz eta, azkenik, modeloaren gorputza zelan kokatu

Deporreko argazkilariek antolatzen duten Argazkilaritza Maiatzean ekimenak 20. edizioa beteko du aurten

Maiatzean goi mailako argazkilarien lanak ikusteko aukera izango dugu herrian egingo diren zortzi erakusketetan

eta berau zuzentzeari arreta berezia eskainiko diogu, horiek baitira erretratu bat egiteko oinarritzko elementuak".

Tailerra Portalean izango da, maiatzaren 7an goizez (10:00etatik 14:00etara) eta arratsaldez (16:00etatik 20:00etara) eta 8an, berriz, goizez bakarrik (10:00etatik 14:00etara). Izen-emateak 20 euro balio du eta argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita egin behar da (plaza mugatuak).

Bestalde, maiatzaren 14an argazkilaritza Untzagara aterako dute, "Topaketak kalean" delakoarekin: 17:00etatik 21:00etara erretratuak egingo dizkiote jendea-ri, argazkiak erakutsiko dituzte eta aurten lehen aldiz benetako argazkilaria minuterora, Clemente Corredera, egongo da bertan, argazkiak egiten eta momentuan errebelatzen.

Urte osoan aritzen dira lanean argazkilaritza taldeko kideak, erakusketak eta bestelakoak antolatzen



Eta, amaitzeko, argazki rallya egingo da maiatzaren 29an. Betiko moduan, zuribeltzean zein digitalean parte hartzeko aukera egongo da eta izen-ematea egunean bertan egingo da, 08:30etik 09:30era, Klub Deportiboan.

Aldizkari digital berria

Argazkilaritza Maiatzean ekimenaren egitaraua ezagutzera emateko aurkezpen-ekitaldia aprobetxatuta, bestalde, Deportiboko Argazkilaritza Taldearen aldizkari digital berria, ARGAZ izenekoa, eman zuten ezagutzera. Azaldutakoaren arabera, hiru hilean behin kalera-tzeko asmoa daukate eta, erakusketetako argazkiez gain, elkarrizketa eta bestelako edukiekin osatzen joango dira, nahi duenak Interneten eskuragarri izateko. Issuu plataformaren bitartez kaleratu duten lehen zenbakiak 95 orrialde



Estilo eta teknika oso ezberdinak ikusi ahal izango dira argazki erakusketetan.

ARGAZ argazkilaritzari eskainitako aldizkari digitalaren lehen zenbaki eskuragarri dago Interneten

dauka, den-denak argazkilaritzari eskainitakoak: Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauaz gain, hainbat kolaborazio, Deportiboko argazkilariek antolatuta azken hiru hilabeteotan herriko tabernetan ikusi ahal izan diren erakusketetako argazkiak, eta Indalecio Ojanguren argazkilaria eibartarrari eskainitako erreportaje zabala biltzen ditu, besteak beste.



Gorriaren esanahia hiru ikututan. FERNANDO SOLANA

Sei jardunaldiren faltan mailaz igotzeko lehenengo biren artean sartzeko borrokan

Jardunaldi kopuru hori falta zaizkio Smartbank Ligan jokatzeko duen Gaizka Garitanoren taldeari azken denboraldian galtutako maila berriro berreskuratzeko. Eta sailkapeneko lehen postuari eusten dio, liga hasierako lehenengoko bi partiduak galdu eta gero, ondoren multzoko talde erregularrena dela erakutsi duen talde armaginak. Hala ere, azken partiduetan -lesioak tarteko- ez du mailarik onena eman eta zaletuak desiatzen daude halako kezka baztertu eta iguera berri bat ospatzeko. Horretarako, lehenengo bi postuetako bat lortu beharko lukete Eibar FT-ko jokalariek; hirugarrenak, aukerak eskaini arren, bi kanporaketa gainditzea eskatzen duelako.

Denboraldi amaierako azken lasterketa honetan eibartarrek hiru partidu izango dituzte etxean eta beste hainbat etxetik kanpo. Hasteke, bihar Malagari egingo diote bisita, La Rosaledan 18:30ean hasiko den norgehiagokan. Ondoren bi partidu jokatuko ditu Ipuruan: lehenengoan Zaragoza hartuko du hilaren 30ean, 18:15etik aurrera, eta hurrengokoa, guztiz erabakigarria izan daitekeen buruz burukoa, berarekin goiko postu horien bila diharduen Valladolid izango da gurean. Hurrengo partidua Leganes taldearen Butarque estadioan jokatuko dute armaginek. Ondoren beste partidu zail bat izango dute Garitanorenak, sailkapeneko goiko aldean dagoen Tenerifek bisitatu-



Llorentek gola sartu zuen azken partiduan.

ko baitu Ipurua. Eta, amaitzeko, nahiz eta partidua kanpoan jokatuko beharko, askogatik azkena den eta dagoeneko maila galdu duen Alcorconi egingo diote bisita gaur egungo liderrek.

Hiru jardunaldiren faltan mailari eusteko itxaropen urriekin jarraitzen du Eibar FT-k

Egoera larriar da Iberdrola Ligan jokatzeko duen Jordi Ferronen taldea aurrekoan, Granadillaren aurka maila eman arren, azkenean 3-2 galdu eta gero. Tenerifek jokatuako partiduan Kundananji aurrelariak sartu zituen eibartarren bi golak eta Noelia atezainak penalti bat geratu zuen; hala ere, luze egin zitzaizkien azken minutuak. Kanpoan geratzen zaizkien partidua ez da errazagoa izango, Atletico de Madrid izango baitute zain. Hori bai, etxean dituzten biak atera behar dituzte aurrera Ferronenek: Villarreal lehenengo eta Valentzia ondoren. Aipatutako bi talde horiek eta Huelvako Sporting sei puntura ditu Eibar FT-k eta mailari eusteko ia marginik gabe dago. Dena dela,



lehen ere Alavesi irabazteko gauza izan zen taldeak ez du itxaropenik galtzen eta aurretik dituen puntuak bereganatzeko asmoarekin dihardu entrenatzen. Asteburu honetan atseden izango dute, azken txanpa erabakiorrari ekin aurretik.

Deporreko xake taldeak hirugarren mailako txapela eskuratu du

Urtarriletik apirilera arte jokatu den Gipuzkoako taldekako xake txapelketan, Eibarko Klub Deportivo lehen postuan amaitu du, horrela datorren urtean 2. mailan jokatzeko txartela eskuratu. Denboraldi honetan talde bakarra aurkeztu dute eibartarrek eta, azken txandan Irungo Fiantxeto taldeari 3'5-0'5 emaitzarekin irabazi eta gero, 3. mailari agur esan diote.

Bestalde, zabalik dago maiatza eta ekainean zehar egitekoa den helduentzako hastapeneko xake ikastaroan izena emateko aukera. Klase horiek eguen guztietan eskainiko dira (18:30-20:00). Prezioa 30 euro da eta, informazio gehiagorako, xakea@deporeibar.com helbidera jo dezakezue.

Arrateren lorpenek urteurreneko denboraldia bereziagoa dihardute egiten

Berez denboraldi hau berezia bazen Eibar Eskubaloiantzat, Arrate sortu zela 75 urte betetzen direla tarteko, lehen bi taldeek eskuratutakoa denboraldi oraindik bikainagoa bihurtu dute ospakizuna, senior mailako talde nagusi biak igoerako play-offa jokatzeko sailkatu direlako: 1. Nazional Mailako gizonezkoena, iazkoari jarraituz, Zilarrezko Ohorezko Mailara igozten saiatuko da; eta Euskal Ligan debutatu duen emakumezkoena, bigarren sailkatu ondoren, maila berera igozten ahaleginduko da.

Fernando Fernandezek gidatzen duen gizonezkoen taldeak bere multzoko lidergoa segurtatu zuen bigarrenari, Helvetia Anaitasunari, Ipuruan batengatik (26-25) irabazi eta gero. Mikel Zuloaga izan zen goleatzaile nagusia, zortzi golekin, eta eibartarrek galdu barik jarraitzen dute.

Andoni Perezek zuzentzen duen emakumezkoen taldekoek, bestalde, iaz igo ondoren beste igoera bat lortzen saiatuko dira, liga amaitzeko jardunaldi baten faltan bigarren postua ziurtatu dutelako. Urdaibai-



ri 18-25 irabazi zioten azken jardunaldian eta Basauri txapeldunarekin izango dira maila igoetzeko saiakeran.

Bost eguneko txangoa egin dute Deporrekoek Aste Santuan

Kataluniako La Vall de Lorderara antolatutako irteeran Pirinioarreen kokatutako Lleidako Sant Llorenç de Morunys herritik abiatu zituzten mendikada horiek 16 mendizalek. Lehen ibilaldian Huesca hiriburutik gertu dagoen San Julian de Banzo herritik San Martin de la Val d'Onsera basilizara iritsi ziren, Guara mendilerroko parajeekin txunditzeko. Bigarren ibilaldian, behin Lleidan, Lord monastegiari bira ematen dion zeharkaldi zirkularrean, Sant Serni del Grau basiliza erromanikotik abiatuz, 1.208 metroko Roc Foradat mendira igo zuten, gero handik Torroellako Zangarara jaisteko, bertako kobazulo eta begiratokiz gozatzeko. Hirugarren ibilaldian 2.320 metroko Serra d'Ensiako la Gallina Pelada gailurra zapaldu zuten. Iparraldean



Irteeran parte hartu zutenetako batzuk Lord-eko gurutzean.

elurra nagusi bazen ere, aise pasatu zuten hura, biguna zegoelako: "Bista ederrak zeuden han Cadi mendizerra eta Pirinio elurtuetarantz". Laugarren ibilaldiko zeharkaldi zirkularrean 1.523 metroko Capolatell mendiaren gailurra zapaldu zuten, azpian sasoi batean zegoen espetxea begiztatzeko: "Ehun metrotik gorako harkaitz tentez inguratuta, zubi estu bat zuten lotura bakarra

kanpokoekin; hura kenduta, handik ezin irten". Bosgarren egunean Clot de Vilamala-ko itzulia egin zuten, La Creu del Codó mendatetik hasi eta Masia abandonatu batean amaitzeko, trokara jaitsi eta beste malda batzuetatik igoz, kable eta sokaz hornitutako bideetatik. Azkenarako 1.000 metro inguruko desnibela gainditu zuten baso polibatuan.

Bi protagonista nagusi Valenciaga Memorialean

Lizarte estatuko afizionatuen mailako talde indartsueneko Pablo Castriño irabazlea eta bigarren amaitu zuen Eolo Kometako Davide Piganzoli azken 30 kilometroetako protagonista nagusia. Horiek izan ziren Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako lasterketa horretako izen nagusiak. Oraingoan eguraldia ere lagun izan zuen 153 kilometroko proban 175 txirrindularik hartu zuten parte, 25 taldetan banatuta, eta ibilbidean bost mendate izan zituzten gainditzeko, 1. mailako Ixua eta Usartza tartean. Aurretik ere Gorlako igoeran irabazle izandako Jacako txirrindulariak tropeletik ihes egin eta helmugarako hiru kilometroren faltan harrapatu zuen ihes eginda zihoan italiarra eta baita atzean laga ere, azkenean Arraten minutu erdiko abantailarekin helmugatzeko.



RAMON BEITIA

Antolatzaileek egindako urte-tik urterako hobekuntzen artean oraingoan azken kilometroetan helikoptero batetik eskainitako airtiko ikuspegiak indar handia hartu zuten streaming bidez lasterketa jarraitu zuten mundu guztiko zaleen artean. Bestalde, lasterketa hasi aurretik omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion orain dela gutxi laga gaituzten Jose Antonio Larrea, Juan Luis Atxa eta Iñaki Lopetegiri.

Emakumezkoen txirrindularitza ate joka

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen emakumezkoen UCI mailako IV. Eibarko Hiria Saria izango da jokoan gurean maiztaren 8an, hemendik bi astera. Ez da erraza izango iazko podiuma hobetzea, bertan izan baitziren munduko hiru onenak lasterketan zehar ikuskizun bikaina erakutsi ondoren. Oraingoan ere maila horri eutsi nahi izango diote antolatzaileek.

Bestalde, OCETAk antolatuta, World Tour-eko Women Itzulia jokatu da hurrengo astean, hiru etapetan banatuta. Maiatzaren 13tik 15era arte jokatu den probak Donostiako Klasikoa ordezkatu du, azken proba horretako datetan Frantziako Tourra izango delako jokoan. Lehenengo etapan Gasteizetik Labastidaraino joango dira, bigarrenak Mallabian izango du irteera eta helmuga, eta azkenak Donostiako Klasikoaren ibilbideari jarraituko dio, gutxi gorabehera.

Amaiera ezin politagoa izan zuen Itzulia Basque Country-k Arrateko helmugan

Inoiz baino borrokatuagoa izan zen Euskal Herriko Itzuliaren aurtengo edizioa, minutu erdia besterik ez baitzen izan amaieran sei lehenengo sailkatuen artean. Gure inguruko errepideetan jokatuak azken etapak, gainera, denetarik izan zuen, batez ere azken 40 kilometroetan gertatutakoari erreparatu: zortzekoak izateaz aparte, erasoak, erorikoak, ezusteko susperraldiak... Meritu handia izan zuen, esaterako, Arrateko helmugan garaile izan zen Ion Izagirrek, Cofidis-ekoa gai izan zelako, erorikoa izan ondoren, aurrekoak harrapatu eta esprintean

nagusitzeko. Bere denbora berean Arraten laugarren sailkatutako Daniel Felipe Martinezek poltsikoratu zuen aste osoko lasterketa, aurretik ere beste etapa bat irabazita. Ineos-eko kolonbiarren atzetik geratu ziren sailkapen nagusian Izagirre, Bora-ko Vlasov, Quick Step-eko Evenepoel, Bahrain-eko Pello Bilbao eta Jumboko Vingegaard.

Itzulia irabazteko hautagai guztiek benetako omenaldia egin zioten txirrindularitzari Eibarren hasi eta Arraten amaitu zen etapa horretan, batez ere Krabelinetik aurrera ikusi zena gogoangarria izan



zelako. Modu horretan, adituek ere ondo goraiatu dute OCETAko antolatzaileek Itzulian egindako egokitzapen guztiak, tartean erlojuz kontrako proba lehenengo egunera pasatu eta azkenak, laburra baina aldi berean gorabeheratsua izanik, taldeen arteko jokorako ematen dituen aukerak azpimarratuz.

JOSE AGUSTIN LARRAÑAGA • Eibarko Artisten Elkarteko presidentea

“Gure erakusketan pintura da nagusi, oleokoa batez ere”

Jose Agustin Larrañagak 11 urte daramatza gure herriko kultur elkarte horretako presidente lanetan, baina aurretik beste 22 eman zituen diruzain karguan. Berarekin izan gara elkarteak, urterokoari jarraituz, Portalean apirila amaitu arte zabaldu duen erakusketa aprobetxatuz. Elkarteko partaideen lanak martitzenetik domekara arte ikusi daitezke, 18:30etik 20:30era ordutegian.



Lanpeturik ez dagoela badio ere, lan fina egiten du Larrañagak.

Zer moduz doa erakusketa orain arte? Bisitarien artean nabari dituzue aldaketarik aurreko edizioekiko?

Inaugurazio ekitaldian sekula baino jende gehiago izan zen eta ezustekoa hartu genuen. Eskertzekoa da hori. Gure erakusketa, bestalde, gustagarria izaten da, beti ezagutzen dugun horietakoa. Onartu behar da gaur egungo gehienak beste mota batekoak izaten direla, askotan jendea pixka bat atzera botatzen dutenak ere. Baina turismo asko dago, eta ardiak txakurrak eramaten dituen tokira joaten dira. Hori ez da barrutik irten-dako zaletasuna; gurea antzinatik datorren jarduna da.

Badago jende berririk zuen artisten artean?

145 bazkide gara gaur egun, adinean gora goazenak. Gazte gutxi gerturatu zaigu, egia esan. Eskola ere badugu herrian, baina handik ez da inor sartu elkartean. Begira, antolatzen dugun aire libreko pintura lehiaketan ere ez da 18 urtetik gorako eibartarrik izaten. Oroz bera izan dugu noizbaiten, baina, orain zuzendaritzakoa denez, hemendik kanpo saiatu beharko da.

Erakusketan denetarik lanak ikusi daitezke, ezta? Badago bestelako modalitaterik euren artean?

35 artista dira parte hartzen eta 70 lan inguru, hau da, bakoitzak binaka lan aurkezten ditu batz bestea. Disziplinen artean, ikusleak marrazkia, pintura, grabatua, eskultura, egurrezko taila, zeramika, argazkilaritza, damaskinatua, larruzko bozeldua... Iaz modelismoa ere izan genuen. Baina oleozko eta akuarelazko lanak dira nagusi.

Zelako ekitaldiak antolatzen dituzue urtero?

Alde batetik, bi irteera egiten ditugu: egun batekoa ekainean eta asteburukoa urrian. Ekainean aurten Añanako Gatzagara joango gara eta Estibalizera ondoren. Urrikoak barizakutik domekara artekoak izaten dira eta Toledotik gora hiriburu gehienetan izan gara dagoeneko: Madril, Zaragoza, Bartzelona, Avila, Valladolid... Horrelakoetan katedralak eta museoak bisitatzen ditugu, batez ere. Maiatzean, bestalde, urtero Ricardo Aldamaren hitzaldiak izaten ditugu Eibarren. Eta, jakina, Sanandresetako aire libreko pintura lehiaketa eta, nola ez, apirilean martxan dugun erakusketa.



Era guztietako dantzekin beteko dituzte herriko kaleak

Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko da datorren barixakuan eta, hori dela eta, herriko talde ezberdinek dantzaldia eskainiko dute, 17:30etik aurrera, herriko lau gunetan (Untzagan, Torrekuako parkean, Urkizukoan eta Errebal Plazan). Ekimenean parte hartuko dutenek Eibarren bertan ikas daitezkeen dantzetan dagoen aniztasuna erakutsiko dute. Biraka dantza taldea, Ballet Eibarres, Kaxa, Os Galaicos Casa As Burgas, Nele dantza eta Kezka dantza taldea arituko dira, aldi berean baina toki ezberdinetan. Eta 20:30etik aurrera nahi beste dantza egiteko aukera egongo da Untzagan, Parrapas taldearen erromerian.



Le Quatuor Ideal taldearen kontzertua bihar 20:00etan

Flandesko laukote hau konpositore klasikoaren musikatik abiatzen da, beste dimentsio batzuetara eramateko. Diasporan ahaztutako euskal musika klasikoa berreskuratzeko helburua duen Batura Zikloaren baitan antolatu dute Coliseoko kontzertua eta, musika entzuteaz haratago, konposizioei buruz ikasteko aukera izango du publikoak. Sarrerak 10 euro balio du.

Gazte Egunerako kamiseta lehiaketa antolatu du JHH-k

Jaixak Herrixak Herrixandakok Sanjuanetarako kamiseta lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko baldintzak hauek dira: “XV. Gazte Eguna” esaldia agertu behar da; “Jaixak Herrixak Herrixandako” edo taldearen logoa baita ere; eta zabaleran 30 eta luzeeran 40 zentimetro izan behar ditu marrazkiak gehienez. Maiatzaren 12ra arte jasoko dituzte marrazkiak jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidean.

Zapatuko Ipuina, apirilaren 30ean



Hilaren 30ean izango da Zapatuko Ipuinaren hurrengo saioa, 18:00etan, Portaleko areto nagusian. Ameli eta Xirrikietuen jostunek “Amaiur” ipuin kontaketa musikatu egingo dute 4 urtetik gorako haurrentzat eta, plazak mugatuak direnez, apirilaren 25etik 28ra izena eman beharko da nahitaez, Udalaren webgunean aurkituko duzuen eskaera-orria beteta.

Eguen Zuri argazki-erakusketa

XXIV. Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak banatzearekin batera zabaldu zuten erakusketa Topalekuan, Arrate Kultur Elkarteak antolatutako lehiaketara aurkeztu diren lanekin. Edizio honetan Pedro Arriolaren “Ausartak”, Maite Beistegiren “Joalduna” eta Fernando Solanaren “Let’s rock” saritu dituzte. Maiatzaren 1era arte joan daiteke ikustera.




Astlehenean hasiko da Udaleku Irekietarako izen-ematea

Apirilaren 25etik maiatzaren 4ra bitartean egongo da zabalik “Oporrak afariketan”, “Udan jolasean”, “Firin Faran” eta “Umiak Firin Faran” Udalak antolatzen dituen udaleku irekietan parte hartzeko izen-ematea. 5 eta 11 urte bitarteko haurrek har dezakete parte ekimenean eta izen-ematea on line egin beharko da, Udalaren web orrian dagoen formularioa beteta. Azpimarratu dute ez da epez kanpoko aurrematrikularik onartuko.



AURKITU 10 DESBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6	4	7				
			6			
	2	9	8		3	
3			1		2	
2	6			8	4	
	9			3	6	
1			5	3	7	
			1			
				8	9	2

6	1	8	2	9	4	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		2		9		
		6				2
		5	6	1	9	8
				8		6
6	9				7	3
	1		6			
7	2		3	5	1	
9					8	
			7		5	

S U D O K U

6	1	8	2	9	4	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7
8	2	9	2	1	6	7

soluzioa

Apirilak 22 / 28

ZAPATUA 23

GAZTA AZOKA

08:30/13:00 Debabarreneko Gazta Azoka. Errebalgo merkatu plaza.



POESIA

18:00 Julia Lasagabaster, "La Revolución Dormida" aurkezten. Itzamna akademia (Karmen, 3).



BISITA GIDATUA

18:30/20:00 "Made in Eibar", Nerea Alustiza historialariarekin. Estaziñotik abiatuta.



MUSIKA

20:00 Le Quatuor Ideal. Coliseo.



ASTELEHENA 25

BILERA

16:00/17:00 Andretxea berria antolatzeko lan-batzordea. Andretxea (Zezenbide, 9 behea).

AURKEZPENA

19:00 "Sasi artean Elgeta" komikiaren aurkezpena. Portalea.



MARTITZENA 26

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarteak antolatuta. Elkartearen lokaletik abiatuta (Ardantzta, 11).

HITZALDIA

19:00 "Rusia fronte a Ucraina. Imperios, pueblos, energía", Carlos Taibo Administrazioetako eta Politika Zientzietako irakasle erretiratua eskutik. Errebal Plaza..



HITZALDIA

19:00 "La reconstrucción de Eibar en imágenes", Jesús Gutiérrez Arosa historialariaren eskutik. Portalea.

HARIXA EMOTEN

19:00 Bertol Arrietaren "Gezurra berdaderoa". Portalea (1. batzartokia).



EGUAZTENA 27

ANTZERKIA

20:00 "Winnipeg". Coliseo.



EGUENA 28

HITZALDIA

16:00/17:00 "Emakume orkestra-zuzendariak", Marina Lertxundi Zarautzeko udal musika eskolako zuzendariaren eskutik. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

HITZALDIA

19:00 "Atlas de bombardeos en Euskadi (1936-1937). El caso de Eibar", Xabier Irujo Ametzaga historialariaren eskutik. Portalea.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 30era arte:

- **EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA**. (Portalea).
- **EIBAR BHI-ko artistak**. (Portalea).
- **"HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA"** (Eibarko Armagintzaren Museoa).
- **FERNANDO RETOLAZAren argazkiak** (Portalea taberna).
- **ARANTZA CORTAJAREn argazkiak** (Depor taberna).



Maiatzaren 1era arte:

- **"XXIV. EGUEN ZURI" argazki erakusketa**. (Topalekua).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

ANTZERKIA

22an (barixakua) / 19:00 Herriko Antzokia.

"Mi hijo sólo camina un poco más lento". Tanttaka Teatroa. Sarrerak: herrikoantzokia.eus



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **23an:** 22:30
- **24an:** 20:00
- **25ean:** 20:30

“A tiempo completo”

Zuzendaria: Eric Graves



2 ARETOA

- **23an:** 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 20:30

“Para Chiara”

Zuzendaria: Jonas Carpignano



ANTZOKIA

- **23an:** 17:00, 19:45 (1 Aretoa)
- **24an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **25ean:** 20:30

“Ambulance Plan de huída”

Zuzendaria: Michael Bay



ANTZOKIA

- **23an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **24an:** 17:00

“Sonic 2. La película”

Zuzendaria: Jeff Foulner





Maria Armolea Alzaa

2022/04/06

“Zure irrifarreak iraungo du gure bizitzak argitzen. Beti gure bihotzean”

- ZURE FAMILIA -





FUNEUSKADI
Funerariak



FUNERARIA MUGICA
Funerariak



24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Oteola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xullion, s/n. SIGMA Industrialdea (Dlasko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeospina, 15</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **LUCIA**, domekan 5 urte beteko dozuz-eta!! Patxo haundi bat etxequon eta, batez be, Pablo zure anaiaren partez!



Zorionak, **ELIXE!!!** Gure potolontxik atzo urtebete egin zeban. Patxo erraldi bat Pello eta Txominen partez!!



Zorionak, **AITZ**. Domekan zure lehelengoko urtia! Asko maitte zaittugu. Zure famelixa.



Zorionak, **INTZA!!!** Bixar 8 urte beteko dozuz! Patxo haundi haundi bat etxeke danon partez. Asko maitte zaittugu!



OIHENART, 11 urte! Errekatxutik Jupitertera eta buelta maite zaittugu!! Zorionak, matxo, aitaxo eta Aioraren partez.



Zorionak, **LUKEN**, hillaren 19xan 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxequon eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, **LUR!** 6 urte honezkerok! Laister ospatuko dogu. Pa haundixa danon partez.



Zorionak, **MARKEL** Lasuen, atzo 10 urte bete zenduagene-eta. Patxo potolua aitaxo, batez be, Anneren partez.



Zorionak, **NAIA!** 10 urte zorionak alkarrekin ospatzen!!!! Musu haundi bat Markel, Anne eta Iratiren partez.



Zorionak, **URKO!!** Datorren martitzean 8 urte beteko dozuz-eta. Milla kilo musu famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MARKEL** (hillaren 9xan) eta **LUKEN** (19xan). Patxo eta besarkada haundi bana famelixa guztiaren partez! Muuuuaa!!



Zorionak, **OSKAR** (eguaztenian) eta **NAHIA** (gaur 13 urte). Ondo-ondo ospatu zeuen urtebetetziak. Musu haundi bana.

IZADI
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Senar-emazteak 2 logelako pisua hartuko luke alokairuan. Erreferentziakin. 667060292.
- Zumaian uztaila eta abuztura-ko 3 logela dituen etxe bat topatzen dihardugu. 659261089.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. 631907807.
- Logela alokatzen diogu neska bati. Sukaldea eta egongela konpartitzeko aukera. 350 euro (gastu guztiak barne). 602051567.

3. LOKALAK

3.1.. Salgai

- Txabola traspasoen Ipuruia inguruan. Terrenoarekin. 649258913.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Habilitazio ziurtagiriarekin. 643622939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 631109062.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Astegunetan arratsaldez eta asteburuetan egun osoz. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 655991987.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko, zainzaile bezala eta eraikuntzan jarduteko. 641055198.
 - Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 624669425.
 - Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak edo umeak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioa eta autoarekin. 612223075.
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. 8 urteko esperientzia. 643574998.
 - Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia, erreferentziak eta zaintzeko habilitazioarekin. 604120104.
 - Neska euskalduna eskaintzen da goizez haurrak eskolara eramateko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
 - Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiei laguntzeko, maskotak pasiatzeko eta errekaduak egiteko. 642030121. Luis.
- ### 4.2. Langile bila
- Pertsona euskalduna behar da goizetan umea haurreskolara eramateko. 699495279.
 - Emakumea behar da astelehenetik ostiralera (goizez 3 ordu eta arratsaldez beste 3) etxeko lanak egin eta emakume bat pasiatzeko. Gida-baimena izatea baloratuko da. 670410107.
 - Higienistak eta laguntzaileak behar dira Eibarko hortz-klinika batean. 621226244.

- Kirol teknikaria behar da. Baldintzak: euskara jakitea eta aquabike, aquafitness eta igeriketa ikastaroak emateko ikasketak izatea. 688610620. Bidali curriculum: eibarigerixan@gmail.com
- Neska euskalduna behar da Eibarko hortz-klinika batean arreta zerbitzua eskaintzeko. Bidali curriculum: miren-txu2000@yahoo.es
- Zerbitzaria behar da tabernarako. Esperientziarekin. Jornada osorako kontratua. 627412431.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatearen prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Txakurkume ezin politagoak oparitzen dira. 688642761. Asier.
- Egongelako kristalezko mahaia oparitzen dut. Berriberria. 600750060.



osasun gida

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

 **Isasi, 17 - 1. esk.**
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua
Degluzio atipikoa / Disfonia
Ikaste-arazoak / TDAH
Berba arazoak / TEA / Dislexia
LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA

 838200124
kolegiatu zerbaki

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

 **PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Okulistikak

 **Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klínika

• **Miopia ebakuntzak**
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13 

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

 BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika


Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

 **AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bilaka
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGIA (2013/14) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

 **PODOLOGOA**

Mainer Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3. atea
www.arratepsicoterapia.com

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
OGIEZ ETIA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - beheak
Tel. 943206823 / 686859023



943-206776

EIBAR Antziteika LUDIA

DESKARGATU
HEMEN!
WELLK APLIKAZIOA
DESCARGA AQUILA
APP WELLK



erakutsi dezagun **Eibartarrok** aktiboenak garela!

*demostramos que los y las Eibarresas
somos los más activos*



300 lagun
baino gehiago
gara jada!

*¡ya somos más
de 300!*

Gehitu kilometroak eta aurkitu sariak:
Suma kilómetros y descubre los premios:

